

**ERABILTZEKO ETA EROSTEKO BALDINTZAK ETA ZEHAZTAPENAK**  
**WWW.MASSIMODUTTI.COM**

## **1. SARRERA**

Dokumentu honek (eta hemen aipatzen diren dokumentu guztiek) ezartzen ditu gure webgunea (www.massimodutti.com) eta aplikazioa (aurrerantzean eta biak barnean hartuta, "Plataformak") erabiltzeko eta bertan produktuak erosteko baldintzak (aurrerantzean, "Baldintzak").

Plataformak erabili aurretik Baldintza hauek, gure Cookie-en politika eta gure Pribatutasun-politika (biak barne hartuta, "Datuk Babesteko Politikak") arretaz irakurtzea eskatzen dizugu. Plataformak erabiltzeko arau guztiak onartu behar dituzu. Eta eskaera bat egiteko, Baldintza hauek berariaz onartu eta gure Pribatutasun-politikan emandako informazioa irakurri beharko duzu, eta haiei men egin. Baldintza guztiakin bat ez bazatoz, ez zenituzke Plataformak erabili beharko.

Baldintzen edo Datuk Babesteko Politiken gainean galderarik izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke harremanetarako inprimakiaren bidez. Plataformetan Baldintzak eskuragarri dauden edozein hizkuntzatan gauzatu ahal izango da kontratua; zuk aukeratu.

## **2. GURE DATUAK**

GRUPO MASSIMO DUTTI SA sozietate espainiarrak MASSIMO DUTTI izenpean saltzen ditu Plataformetako produktuak (helbidea: Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143 Arteixo [Coruña] Coruñaako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 1.762 liburukian, Atal Orokorrean, 211. orrialdean, C-15.800 orrian; IFZ: A78115201; telefonoa: 900 456 000; eta helbide elektronikoa: contact@massimodutti.com.).

## **3. ZURE DATUAK ETA PLATAFORMETARA EGINDAKO BISITAK**

Zuri buruz ematen diguzun informazioa edo zure datu pertsonalak Datuk Babesteko Politiketara xedatutakoari jarraiki tratatuko dira. Plataformak erabiltzerakoan ematen dizkiguzun informazio eta datu guztiak benetakoak izan behar dira eta errealitatearekin bat etorri behar dira.

## **4. GURE PLATAFORMEN ERABILERA**

Gure Plataformak erabiltzean eta haien bidez eskaerak egiterakoan, konpromiso hauek hartzen dituzu zure gain:

1. Plataformak legez baliozkoak diren kontsultak edo eskaerak egiteko baino ez erabiltzea.
2. Eskaera faltsu edo iruzurrezkorik ez egitea. Halako eskaera bat egin dela arrazoitzen duten argudioak badaude, baimena izango dugu eskaera ezeztatzeko eta autoritate eskudunei egindakoaren berri emateko.

3. Zure helbide elektronikoa, posta-helbidea edota harremanetarako bestelako egiazko datu zehatzak ematea. Halaber, informazio hori zurekin harremanetan jartzeko erabili ahal izango dugu, beharrezkoa izatekotan (ikus gure Pribatutasun Politika). Behar dugun informazio guztia ematen ez badiguzu, ezingo dugu zure eskaera bideratu. Gure Plataformen bidez eskaera bat egiterakoan, 18 urte baino gehiago duzula eta legez kontratuak sinatzeko gaitasuna duzula aitortzen duzu.

## **5. ZERBITZUAREN ERABILGARRITASUNA**

Gure Plataformen bidez eskaintzen diren salgaiak Espainiako lurraldera soilik bidali daitezke.

Gure Plataformetan beste herrialde batetik eskaera bat egin nahi baduzu, arazorik gabe egin dezakezu. Halere, gogoan izan entregak Espainiako MASSIMO DUTTI dendetan edota Espainiako lurraldeko bidalketa-helbideren batean soilik egiten ditugula.

Aurrekoaren kalterik gabe, kontuan izan <https://www.massimodutti.com/ic/> webgunearen bidez egindako eskaerak bakarrik Kanariar Uhartean barruan entregatuko direla (etxean edo dendan), eta ez penintsulan. Orobat, <https://www.massimodutti.com/es/> webgunean egindako eskaerak penintsulan bertan entregatuko dira soilik (etxean edo dendan), ez Kanariar Uharteetan.

## **6. NOLA EGIN ESKAERA**

Eskaera bat egiteko, on line erosteko prozesuari jarraitu eta "Ordainketa baimendu" sakatu beharko duzu. Jarraian, mezu elektronikoa bat jasoko duzu zure eskaera jaso dela jakinarazteko ("Eskaeraren baieztapena"). Halaber, mezu elektronikoa bidez jakinaraziko dizugu zure eskaera bidaltzen dugunean ("Bidalketaren baieztapena"). Zure eskaerari buruzko xehetasunak dakartzan tiket elektronikoa bat ere erantsiko da Bidalketaren Baieztapenean ("tiket elektronikoa").

## **7. AKATSAK ZUZENTZEKO BITARTEKO TEKNIKOAK**

Gure Plataformen erabiltzaile gisa erregistratzeko datuak sartzekoan akatsen bat egongo balitz, "Nire Kontua" atalean zuzendu ahalko dituzu.

Nolanahi ere, erosketa-prozesuan emandako datu pertsonalekin lotutako akatsak zuzentzeko, bezeroarentzako arreta zerbitzura jo beharko duzu 900 456 000 telefonoaren bidez, edo [contact@massimodutti.com](mailto:contact@massimodutti.com) helbide elektronikora idatziz. Halaber, gure Pribatutasun Politikan adierazitakoaren arabera datuak zuzentzeko eskubidea erabil dezakezu. Erosketa-prozesuko zenbait ataletan berrespen-leihoak erakutsiko dituzte gure Plataformek; atal horietan emandako datuak behar bezala eman ez badira, ezin izango da eskaerarekin aurrera egin. Halaber, erosketa-prozesuan zehar saskian gehitu dituzun produktu guztiei buruzko xehetasunak ematen dituzte gure Plataformek; ordaindu aurretik, hortaz, aukera izango duzu eskaeraren datuak aldatzeko.

Ordainketa-prozesua amaitu ondoren akatsen bat antzematen baduzu eskaeran, jarri harremanetan berehala gure bezeroaren arreta-zerbitzuarekin, arestian aipatutako telefonozenbakian edo posta elektronikoz bidez, akatsa zuzentze aldera.

## **8. PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA**

Eskaera guztiak produktuen eskuragarritasunaren baitan daude. Produktuen hornidurarekin lotutako arazoak egongo balira edo produktuen stock-ik egongo ez balitz, ordaindutako kopurua itzuliko genizuke.

## **9. ENTREGA**

Eskaera osatu aurretik, zure beharretara hoberen egokitzen den entrega-modalitatea hautatu beharko duzu. Beste gauzaren bat adostu ezean, Bidalketaren Berrespen bakoitzarekin lotutako produktuen eskaera bidaliko dizugu behar ez bezalako atzerapenik gabe, eta betiere, eskaera baieztatu zenetik 30 egun naturaleko epean. Kontuan izan entrega-datan eragina izan dezaketen produktuak pertsonalizatzeko edo bestelako aparteko arazoak egon daitezkeela. Edozein arrazoi medio ezingo bagenu aipatu datan bidali, jakinarazi egingo dizugu eta aukera emango dizugu erosketarekin jarraitzeko (entregatzeko beste data bat ezarriz) edo eskaera indargabetzeko. Kasu horretan, ordaindutako guztia itzuliko dizugu. Edonola ere, kontuan izan behar duzu larunbat eta igandeetan ez dugula etxean entregarik egingo, ezohiko kasuetan eta opari-txartel birtualaren kasuan izan ezik. Azken hori zuk adierazitako datan entregatuko da. Baldintza hauei jarraiki, "entrega" gauzatu edo eskaera "entregatu" dela ulertuko da zuk edo zuk adierazitako hirugarren batek produktuak eskuan dituenean. Horretarako, adierazitako entrega-helbidean sinatu egin beharko da eskaera jasotzean. Opari Txartelaren Erabilera Baldintzetan xedatutakoari jarraiki entregatuko dira opari-txartelak eta, edonola ere, zuk adierazitako helbide elektronikora bidaltzen den datan.

## **10. ENTREGATZEKO EZINTASUNA**

Zure eskaera ezingo bagenu entregatu, gordetzeko leku segurua bat bilatzen saiatuko gara. Ezin badugu leku segururik aurkitu, eskaera gure biltokira itzuliko da. Ezin bazara egon hitzartutako orduan eskaera entregatu behar den lekuan, jarri gurekin harremanetan beste egun batean entregatu ahal izateko. Eskaera entregatzeko prest zegoenetik 15 egun igarota, guri egozgarriak ez diren arrazoiengatik entrega egin ez bada, kontratua bertan behera utzi nahi duzula ulertuko dugu eta indargabetutzat hartuko dugu. Kontratua amaitzearen ondorioz, ordaindu duzuna itzuliko dizugu, baita entrega-gastuak ere (eskaintzen dugun ohiko entrega merkeena ez den beste modalitate bat hautatzeagatik egon litezkeen gastu osagarriak izan ezik) bidegabeko atzerapenik gabe, eta, edonola ere, kontratua amaitutzat hartu eta 14 eguneko epean gehienez. Mesedez, kontuan izan kontratua amaitzeagatik behar den garraioa kostu gehigarri bat dela; beraz, baimena izango dugu kostu horiek zuri ordainarazteko. Klausula hau ez zaio aplikatuko opari-txartel birtualari, Opari Txartela Erabiltzeko Baldintzetan eta arestiko 9. klausulan xedatutakoaren arabera entregatuko baita.

## **11. BEREHALAKO ENTREGA**

Dendan gure "Instant Delivery" zerbitzuaren bidez entregatzeko modalitatea hautatuz gero, zure eskaera Plataforman adierazten diren epeetan baino lehenago entregatu ahal izango da. Mesedez, kontuan izan ezin duzula zerbitzu hau aukeratu eskaera egitean, eta stockaren egoeraren eta bestelako faktore batzuen menpe dagoela. Zure "Instant Delivery" eskaera prest dugunean, zurekin jarriko gara harremanetan jasotzeko prest duzula jakinarazteko. Entregarako aukeratu duzun dendan jaso dezakezu zuk zeuk (eskaera-zenbakia eta NANA aurkeztuta) edo beste norbaiti eska diezaiokezu zure izenean jaso dezan. Bigarren kasu horretan, izendatzen duzun pertsonak eskaera-zenbakia eta bere NANA aurkeztu beharko ditu.

## **12. ARRISKUAREN ETA JABETZAREN TRANSMISIOA**

Produktuen arriskua zure erantzukizuna izango da entregatzen diren unetik aurrera. Produktuen jabe izango zara horiei dagokien ordainketa osoa jaso dugunean, hots, bidalketa-gastuak barne, edo produktua entregatzen den unean (aurreko 9. klausulan adierazitako definizioaren arabera), entrega ordaindu ostean egiten bada.

## **13. PREZIOA ETA ORDAINKETA**

Plataformetako prezioek BEZa barne hartzen dute (zerga hori aplikatu behar den kasuetan), baina ez bidalketa-gastuak. Beraz, horiek guztizko kopuruan gehituko dira, gure Erosketa - Bidalketa Gidan adierazitako moduan. Prezioak noiznahi alda daitezke, baina izan daitezkeen aldaketek ez diete eragingo eskaerei, dagokien Eskaera Berrespena bidali badizugu. Erosi nahi dituzun salgai guztiak aukeratutakoan, erosketa-saskian gehituko dira. Ondoren, eskaera izapidetu eta ordaindu beharko duzu. Horretarako, erosketa prozesuko urratsak jarraitu beharko dituzu, haietako bakoitzean eskatzen zaizun informazioa betez edo egiaztatuz. Halaber, erosketa-prozesuan, ordainketa egin aurretik, zure eskaeraren datuak aldatu ahal izango dituzu. Erosketa Gidan zehatz-mehatz azaltzen da erosketa-prozesua. Gainera, erabiltzaile erregistratua bazara, egindako eskaera guztien xehetasunak aurkituko dituzu Nire Kontua atalean. Ordaintzeko, Visa, Mastercard, American Express, Affinity Card, PayPal eta Bizum erabili ahal izango dituzu (banku bakoitzaren eta bere aplikazioaren erabilgarritasunaren eta funtzionamenduaren arabera). Halaber, erosketaren prezio osoa edo zati bat Fashion Retail SA enpresak jaulkitako opari-txartel batekin edo abonu-txartel batekin ordain dezakezu. Fashion Retail SAk, Avenida de la Diputación, Edificio Inditex, Arteixon, Coruña (Espainia) helbidea duenak, Coruña Merkataritza Erregistroan izena emana duenak (3425. liburukia, 49. orria, C47731. orrialdea) eta A-70301981 Identifikazio Fiskaleko zenbakia duenak, GRUPO MASSIMO DUTTI SAREN izenean egingo ditu ordainketak eta, hala badagokio, gure Plataformen bidez ordaindutakoa itzuli. Espainiako MASSIMO DUTTI denda jakin batzuetan erabilgarri dauden gailu elektronikoen bidez egiten baduzu eskaera, haietan erabilgarri duten edozein ordainketa-bide ere erabili ahal izango duzu denda batzuetan. Baimenik gabeko erabileraren arriskua minimizatzeke, zure kreditu-txartelaren datuak kodifikatuko dira. "Baimendu ordainketa" dioen tokian klik egitean, kreditu-txartela zeurea dela edo opari-txartelaren edo abonu-txartelaren egiazko jabea zarela aitortzen duzu. Kreditu-txartelen erabilera horiek jaulki dituzten erakundeen egiaztapen eta baimenei lotuta dago; hala, dagokion erakundeak ordainketa baimentzen ez badu, ez dugu inolako erantzukizunik

izango entregak atzeratzeagatik edo ez entregatzeagatik, eta zurekin ezingo dugu kontraturik sinatu.

#### **14. GONBIDATU GISA EROSI**

Eskaera MASSIMO DUTTI denda jakin batzuetan dauden gailu elektronikoen bidez egiten baduzu, web orriak ere erosketa egiteko aukera ematen du, gonbidatu gisa. Erosketa-modalitate honetan, eskaera izapidetzeko behar-beharrezko datuak baino ez dira eskatuko. Erosketa-prozesua amaitu ostean, erabiltzaile gisa erregistratzeko edo erregistratu gabe jarraitzeko aukera eskainiko zaizu.

#### **15. EROSKETA AZKARRA**

Erosketa azkarra funtzionalitatearekin (Aurrerantzean, "Erosketa Azkarra") errazago burutu ahalko dituzu erosketak Plataformetan, erosketa bakoitzean bidalketa-, fakturazio- eta ordainketa-datuak idatzi behar ez izateko. Erosketa-saskia atalean dago erabilgarri Erosketa Azkarra. Erosketa Azkarra erabiltzeko, zure txartelaren datuak gorde beharko dituzu. Plataformetan onartzen den edozein txartelarekin ordaintzerakoan gorde ahal izango dituzu datuok, "gorde nire txartelaren datuak" aukera sakatuta. Horretarako, zure txartelaren datu hauek gordeko dira: txartel-zenbakia, titularraren izena (txartelean idatzita dagoen bezala) eta txartelaren iraungitze-data. Zure txartelaren datuak gorde eta Erosketa Azkarra erabili ahal izateko, indarrean dauden Baldintzak eta Pribatutasun politikak jasotako zure datu pertsonalen tratamendua onartu beharko dituzu. Erosketa Azkarraren erabilera onartzean, baimena ematen duzu tresna horren bidez burutzen diren erosketen ordainketa, tresnan gorde den txartelean kargatzeko. Dena dela, zure eta txartelaren igorlearen artean adostutako baldintzen arabera erabiliko da beti txartela. Erosketa Azkarra atalean nahi dituzun beste txartelen datuak gorde ditzakezu. Horretarako, gutxienez ordainketa bat egin beharko duzu bakoitzarekin. Txartel bat baino gehiagoren datuak gorde nahi izatekotan, azkenekoz gordetako datuei dagokien txartela izango da zure "Gogoko Txartela". Txartel horretan, hain zuzen ere, zordunduko dira automatikoki Erosketa Azkarraren bidez egindako erosketak. Hala ere, Txartel gogokoena aldatzeko aukera izango duzu webguneko "Nire kontua" atalean. Erosketa Azkarra erabiltzeko, Erosketa Saskian agertuko den "Erosketa Azkarra" botoia sakatu baino ez duzu egin behar. Berehala agertuko dira zure erosketaren bidalketa-, fakturazio- eta ordainketa-datuak pantailan. Pantaila horretan agertzen den informazioa ezin izango da editatu; horrenbestez, daturen bat zuzena ez bada, ez ezazu erosketa-prozesua amaitu. Erosketak beste datu batzuekin egiteko, ez erabili Erosketa Azkarra zerbitzua. Webguneko "Nire kontua" atalean, Erosketa Azkarrari lotutako Txartel gogokoena aldatu ahalko duzu. Klausula honetan adierazitakoa ez da aplikatuko gonbidatu gisa erosten baduzu.

#### **16. PERSONAL TAILORING**

Webguneak Personal Tailoring atal berezia du. Bertan, horri buruzko informazioaz gainera, Personal Tailoring bidez erositako produktuei buruzko informazioa ere izango duzu eskuragarri,

eta, aurretik Espainiako MASSIMO DUTTI dendaren batean Personal Tailoring alkandoraren bat erosi baduzu, “zure neurrira” egindako Personal Tailoring alkandora berriak erosi ahal izango dituzu, webgunean zein Personal Tailoring jantziak dituzten Espainiako MASSIMO DUTTI dendetan. Horretaz gainera, dagokion atalaren baldintzen arabera, Personal Tailoring hitzorduak kudeatu ahal izango dituzu webgunearen bidez, Espainian Personal Tailoring jantziak dituzten MASSIMO DUTTI dendetarako.

## **17. PRODUKTU PERTSONALIZATUAK**

Plataformek zenbait produktu pertsonalizatzeko aukera ematen dizute, produktu bakoitzarentzat eskuragai dauden aukeretako testuak eta karaktereak erantsiz. Produktu pertsonalizagarriak hala adierazita egongo dira. Erosketa-gidan aurkituko duzu aukera honi buruzko informazio gehiago. Arrazoi teknikoak edo gure borondatek kanpoko bestelako zioak direla eta, baliteke benetako koloreak, ehundurak eta neurriak pantailan erakutsitakoekin guztiz bat ez etortzea. Halaber, jantzi pertsonalizatuak izateagatik, gogoratu ezingo direla produktuok itzuli edo aldatu. Testuak eta produktuak pertsonalizatzearen gainerako elementuak erabiltzeko baimena duzula bermatzen duzu. Pertsonalizazioa ezeztatzeko eskubidea dugu, baita produktu pertsonalizatuaren eskaerak bertan behera uzteko ere, baldintza hauek betetzen ez badira. Hala ere, zu izango zara eskatutako pertsonalizazioaren erantzule bakarra. Pertsonalizazioak elementu ezegokiak, hirugarrenenak edo nolanahe legez kontrakoak dituela uste badugu, aukera izango dugu pertsonalizazioa ezeztatzeko edota produktu pertsonalizatuaren eskaerak bertan behera uzteko. Ez dugu zerbitzu honen erabiltzaileek sortutako pertsonalizazioaren testuak edo beste elementu batzuk egiaztatzeko betebeharririk, eta ez dugu haien ardurarik hartzen. Ez dugu bermatzen testuak edo bestelako elementuak zilegi direnik; horrenbestez, ez dugu inolako erantzukizunik hartzen pertsonalizazioak edozein erabiltzaile edota hirugarrenengan —partikularrak zein erakunde publiko edo pribatuak— zuzenean eta zeharka eragin ditzakeen kalteengatik, ezta pertsonalizazioarekin eta haren produktuekin harreman zuzena nahiz zeharkakoa dutenengatik ere.

## **18. MASSIMO DUTTI FEEL-EN ONURAK**

Erabiltzaile erregistratua bazara eta kontsumitzaile gisa jarduten baduzu, deskontuak, abantailak, onurak, pizgarriak eta beste aukera eskusibo batzuk (aurrerantzean, “Massimo Dutti Feel-en onurak”) izango dituzu, bai gure webgunean eta aplikazioan, bai gure denda fisikoetan (Massimo Dutti For & From dendetan, faktoretako etengabeko salmentarekin zerikusirik ez duten outlet-etan eta factories-etan izan ezik). Massimo Dutti Feel-en onurak uneoro jakinaraziko dira, indarrean dagoen legediaren arabera, eta Massimo Dutti Feel-en onura bakoitzari dagozkion baldintzetan (aurrerantzean, “Zehaztapen partikularrak”) aplikatuko dira, behar bezala iragarriko direnak. Alde horretatik, erabilera- eta erosketa-baldintza hauek Massimo Dutti Feel-en onura bakoitzerako baldintza partikularrekin osatuko dira.

## **19. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ETA FAKTURAZIOA**

Balio Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraiki, salgaiak Espainiako BEZa aplikagarri den lurraldean entregatuko direla ulertuko da baldin eta entrega-helbidea Espainiako lurraldean badago, Kanariak, Ceuta eta Melilla salbu. Legez une bakoitzean indarrean dagoen BEZa aplikatuko da, salgai bakoitzari dagokionaren arabera. Kanarietarako, Ceutarako eta Melillarako eskaeren kasuan, entreegi ez zaie BEZik aplikatuko, 37/1992 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, baina bai lurralde horietako bakoitzean indarrean dagoen araudien arabera aplikagarri zaizkien zergak eta muga-zergak. Berariazko baimena ematen diguzu faktura euskarri elektronikoa bidaltzeko. Hala ere, edozein momentutan jakinarazi diezagukezu faktura paperean jaso nahi duzula; kasu horretan, zuk eskatutako formatuan bidaliko dizugu faktura.

## 20. ITZULKETEN POLITIKA

### 20.1 Erosketa utziesteko legezko eskubidea

#### *Utziesteko eskubidea*

Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa kontratatzen baduzu, kontratu hau utziesteko eskubidea izango duzu, 14 egun naturaleko epean eta arrazoirik eman beharrik gabe. Utziesteko epea 14 egun naturaleko epean bukatuko da, zuk edo zuk adierazitako hirugarren batek (garraiolaria ez dena) produktuen jabetza materiala hartu zenutenetik; zure eskaera osatzen duten produktuak banaka entregatzen badira, 14 egun naturaleko epean, zuk edo zuk adierazitako hirugarren batek (garraiolaria ez dena) azken produktuaren jabetza materiala hartu zenuten egunetik kontatzen hasita. Utziesteko eskubidea gauzatzekotan, horren berri izan beharko dugu MASSIMO DUTTI-n, hurrengo helbide honetan: Pol. industrial INDITEX. Camino de Tordera a Palafolls S/N. Km.0.6 08490 Tordera (Bartzelona); edo 900 456 000 telefonora deituta, [contact@massimodutti.com](mailto:contact@massimodutti.com) helbidera idatzita edo harremanetarako gure inprimakian; edozein bide erabilia, Kontratua utziesteko erabakia jakinarazi behar diguzu, ageriko adierazpena eginez (esaterako, ohiko posta edo posta elektronikoa bidez eskutitza bidalita). Baldintza hauen Eranskin gisa datorren utziesteko inprimakiaren eredia erabil dezakezu, baina ez da derrigorrezkoa. Utziesteko epea betetzeko, eskubide hau erabiltzeko duzun asmoa jakinarazi baino ez duzu egin behar, dagokion epea bete aurretik.

#### *Utziestearen ondorioak*

Utzietsiz gero, egindako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, hasierako bidalketa-helbiderainoko entrega-gastuak barne (eskaintzen dugun oinarritzko entrega modalitaterik merkeena ez den bestelako entrega-modalitate bat aukeratzetik eratorritako gastu osagarriak izan ezik), behar ez bezalako atzerapenik gabe, eta betiere kontratuan atzera egitea erabaki duzula jakinarazten diguzunetik 14 egun naturaleko epean, gehienez jota. Hasierako transakziorako erabili zenuen ordainketa-metodo bera erabiliko dugu itzulketa egiteko. Itzulketaren ondorioz ez duzu beste inolako gastu gehigarririk izango. Hala ere, itzulketa atxiki ahal izango dugu guk produktuak jaso arte, edo aipatu produktuak itzuli izanaren frogagiria aurkezten duzun arte, bi aukeretatik lehenen gertatzen denaren arabera. Produktuak zuzenean itzuli beharko dituzu Espainiako edozein MASSIMO DUTTI dendatan; edo aukera duzu mezulari/Courier bidez itzultzea eskatzeko, hautatu duzun bidalketa-metodoa edozein dela ere; baita Correosek

Espainian dituen entrega-gunereren batean produktuak entregatzeko ere, eta horretarako eskaeran bidaliko dizugun itzulketa-tiketa erabili beharko duzu; edo produktuak helbide honetara bidaltzeko: NAVE MASSIMO DUTTI, Pol. industrial INDITEX. Camino de Tordera a Palafolls S/N. Km.0.6 08490 Tordera (Bartzelona); ezingo da behar ez bezalako atzerapenik egon, eta, edozein kasutan, kontratua utziesteko erabakia jakinarazi zenigun egunetik 14 egun naturaleko epean itzuli beharko dira. Epea bete duzula ulertuko da produktuak aipatu epea bukatu baino lehen itzultzen badituzu. Itzulketa Espainiako MASSIMO DUTTI denda batean edo Correos-ek Espainian dituen entrega-gunereren batean egin ezean, zure kargurako izango dira produktuen itzulketak sortzen dituen zuzeneko kostuak. Kasu horretan, gogoan izan produktuez gain Bidalketaren Berrespenarekin batera jasotako tiket elektronikoaren kopia entregatu beharko duzula inprimatuta. Ondasunen jatorria, ezaugarriak eta funtzionamendua zehazteko beharrezkoa ez den beste manipulazio bategatik ondasunen balioa murrizten bada, zu zeu izango zara horren erantzule bakarra.

## 20.2 Utziesteko kontratuzko eskubidea.

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei legez onartutako eta aurreko 19.1 klausulan aipatutako utziesteko eskubideaz gain, 30 eguneko epea ematen dizugu produktuak itzultzeko, Bidalketaren Berrespenaren datatik zenbatzen hasita (hurrengo 19.3 klausulan aipatzen diren kasuetan izan ezik; horien gainean ez dago utziesteko eskubiderik). Opari Txartelaren Erabilera Baldintzek arautzen dute opari-txartela itzultzeko modua. Produktuak utziesteko eskubidearen kontratuzko epean itzuliz gero, baina legezko epea iraungi ondoren, produktuengatik ordaindutako prezioa itzuliko zaizu soilik. Produktua Espainiako MASSIMO DUTTI denda batean edo Espainiako Correos-eko entrega-guneetako batean itzultzen ez baduzu, zure kontu izango dira hura itzultzearen ondorioz sortutako kostu zuzenak. Utziesteko eskubidea erabili ahal izango duzu aurreko 19.1 klausulan zehazten denari jarraiki. Kontratua utzietsi nahi duzula jakinarazten badiguzu utziesteko legezko epea igaro ostean, Bidalketaren Berrespen-datatik zenbatzen hasita, 30 eguneko epean itzuli beharko dituzu produktuak.

## 20.3 Xedapen komunak

Ez duzu utziesteko kontratu-eskubiderik izango honako produktuen kasuan:

- \* Salgai pertsonalizuak.
- \* Musika CDak/DVDak jatorrizko bilgarririk gabe.
- \* Higiene-arrazoiengatik zigilatu diren ondasunak, baldin eta entregatu ondoren zigilua kendu bazaie.

Kontratuari uko egiteko eskubidea jasotako egoera berean itzultzen diren produktuen kasuan bakarrik aplikatuko da. Ez da dirurik itzuliko produktua irekitzeaz gain hura erabili bada, ezta entregatu ziren egoera berean ez dauden produktuen edo kalteren bat dutenen kasuan ere; beraz, kontuz ibili beharko zara produktua(k) zure zaintzapean dagoenean/daudenean. Mesedez, produktua itzultzean bere jatorrizko bilgarriak, argibideak, eta produktuarekin batera bidalitako beste edozein dokumentu ere itzuli. Itzulketak Espainiako edozein MASSIMO DUTTI dendatan egin ditzakezu, edo zure etxera bidaliko dugun mezulari/Courier baten bitartez edo Correos-ek Espainian dituen entrega-gunereren batean, jarraian adierazitakoari jarraikiz.



- MASSIMO DUTTI dendan egiteko itzulketak. Espainiako MASSIMO DUTTI-ren edozein dendatan itzuli ahalko dituzu produktuak, baldin eta itzuli nahi duzun produktuari dagokion atal bera badu. Kasu horretan, denda horietako batera joan eta, itzuli nahi dituzun produktuekin batera, Bidalketaren Berrespenean erantsita jaso zenuen tiket elektronikoa entregatu beharko duzu. Tiket hori Plataformetako zure kontuaren bidez ere eskura dezakezu. Tiket elektronikoa modu digitalean aurkez dezakezu, mugikorren pantailan erakutsita. Bestela, inprimatuta ere eraman dezakezu dendara.
- Itzulketak mezulari/courier baten bidez. Gurekin harremanetan jarri behar duzu itzulketa egiteko dugun eskaeraren bitartez, zure etxean produktua nola jaso antolatzeko. Produktua jaso zenuen pakete berean eman beharko duzu, Plataformetako "ITZULKETAK" atalean topatuko dituzun argibideei jarraituz. Gonbidatu gisa erosi baduzu, mezulari/courier bidezko itzulketak eskatu ahalko dituzu 900 456 000 telefonora deituta. Gogoratu produktuak mezulari/Courier bidez itzultzea ere eska dezakezula, eskaeran edozein bidalketa-metodo hautatuta ere. Halaber, kontuan izan guk antolatutako mezulari/courier baten bidez itzultzen baduzu, itzulketaren zuzeneko kostua ordaindu beharko duzula.
- Correosek Espainian dituen entrega-guneen bidez itzultzea.

Correos-ek Espainian dituen entrega-gunereren batean itzuli ahal izango dituzu produktuak. Horretarako, hautatu "Entrega-gunea" metodoa itzulketa eskatzerakoan, Plataformetako "Nire Kontua" ataleko "Eskaerak eta Itzulketak" delakoan. Horren ostean, mezu elektronikoa bat bidaliko dizugu itzulketa-etiketarekin, eta paketea itsatsi eta tokian-tokiko Correos bulegoan utzi beharko duzu. Produktua jaso zenuen pakete berean bidali beharko da eta Plataformetako "Nire Kontua" saileko "Eskaerak eta Itzulketak" atalean azaltzen diren argibideak jarraitu, edo mezu elektronikoa bertan adierazten direnak. Gonbidatu gisa erosi baduzu, produktuak Espainian dauden entrega-guneetan itzultzea eska dezakezu, eta horretarako Eskaeraren Berrespenarekin batera bidaliko dizugun esteka erabili beharko duzu. Beharrezko egiaztapenak egin ostean, mezu elektronikoa bat jasoko duzu etiketa batekin; etiketa paketea itsatsi eta aipatu entrega-gunereren batean itzuli beharko duzu.

Produktuak eskura dituzun doako aukeren bidez itzuli nahi ez badituzu, zeure gain hartu beharko dituzu itzulketaren kostuak. Kasu horretan, gogoan izan produktuez gain Bidalketaren Berrespenarekin batera jasotako tiket elektronikoa kopia entregatu beharko duzula inprimatuta. Mesedez, kontuan izan produktuak garraio-kostua zorretan dela itzuliz gero, baimena izango dugula eragindako gastuak zuri ordainarazteko.

Produktua aztertu ostean, ordaindutako kopuruak itzultzeko eskubidea duzun edo ez jakinaraziko dizugu. Garraioari dagozkion gastuak soilik itzuliko dira utzizteko eskubidea legezko epean erabiltzen denean eta dagokion eskaera osatzen duten produktu guztiak itzultzen direnean. Itzulketa lehenbailehen egingo da, gehienez ere 14 eguneko epean, utzizteko zenuen asmoa jakinarazi zenigun egunetik kontatzen hasita. Hala ere, itzulketa atxiki ahal izango dugu produktuak jaso arte, edo produktuak itzuli izanaren frogagarria

aurkezten duzun arte, bi aukeretatik lehenen geratzen denaren arabera. Erosketa egiteko erabili zenuen ordainketa-modu bera erabiliko da beti dirua itzultzeko, itzulketarako opari-tiket bat aurkezten denean izan ezik. Azken kasu horretan, MASSIMO DUTTI txartel edo abonutiket bidez egingo da itzulketa.

Zure gain hartuko dituzu produktuak itzultzeari lotutako kostuak eta arriskua, arestian adierazi bezala. Zalantzaren bat izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke harremanetarako dugun inprimakiaren bidez edo 900 456 000 telefono-zenbakira deituz.

Espainiako MASSIMO DUTTI denda jakin batzuetan erabilgarri dauden gailu elektronikoen bidez egindako eskaerak, dendako kutxan ordaindu direnak, Espainiako MASSIMO DUTTI dendetan baino ezin izango dira itzuli. Utziestea erabaki baduzu, zuk egindako ordainketa guztien zenbateko osoa itzuliko dizugu, hasieran erabilitako ordainketa-metodo beraren bidez.

#### 20.4 Itzulketak Kanarietan, Ceutan eta Melillan

Kanarietan, Ceutan edo Melillan entregatu den produkturen bat aldatu edo itzuli nahi baduzu, zuk zeuk egin ahal izango duzu edozein MASSIMO DUTTI dendatan, edo zure etxera bidaliko dugun mezulari/Courier bidez (edozein bidalketa-metodo hautatuta ere) edo Correos-ek Espainian dituen entrega-guneetan, honako klausula honetan jasotakoaren arabera.

#### 20.5 Produktu akastunen itzulketak

Entrega-unean produktua Kontratuan azaldutakoarekin bat ez datorrela uste duzun kasuetan, berehala jarri beharko duzu gurekin harremanetan gure harremanetarako inprimakiaren bidez, produktuaren datuak eta daukan kaltea zein den adieraziz. Bestela, 900 456 000 telefono-zenbakira deitu eta zer egin behar duzun azalduko dizugu. Produktua Espainiako edozein MASSIMO DUTTI dendatan itzuli ahal izango duzu, zure etxera bidaliko dugun mezulari bati edo Correos-ek Espainian duen entrega-guneraren batean entregatuz edo aurretiaz adierazitako helbidera bidaliz. Itzulitako produktua zehatz-mehatz aztertzeari ekingo diogu eta mezu elektronikoko baten bidez, zentzuzko epe baten barruan, itzulketa zein aldaketa (hala dagokionean) bidezkoak diren jakinaraziko dizugu.

Produktua ahalik eta azkarren itzuli edo aldatuko da eta, edozein kasutan, 14 eguneko epearen barnean, ukatutako produktua itzul edo alda daitekeela berresten duen posta elektronikoa bidaltzen dizugun egunetik zenbatzen hasita.

Akatsen bat dutelako itzultzen diren produktuengatik ordaindutako kopuruak, betiere akats hori benetakoa bada, osorik itzuliko dira, baita hura entregatzean sorrarazitako gastuak eta produktua guri helarazteko zuk ordaindutakoak ere. Erosketa egiteko erabili zenuen ordainketa-modu bera erabiliko da beti dirua itzultzeko, itzulketarako opari-tiket bat aurkezten denean izan ezik. Azken kasu horretan, MASSIMO DUTTI txartel edo abonutiket bidez egingo da itzulketa. Edonola ere, indarrean dagoen legeak aintzatesten dituen eskubideak babestuta daude.

## 20.6 Utziesteko eskubidea eta eskaeren itzulketa atzerritik.

Espainia ez den Europar Batasuneko herrialde batetik gure Plataformetan eskaerarik egin baduzu, aurretik aipaturiko 19.1, 19.2, 19.3 eta 19.4 klausulak ezarriko dira, guk antolatutako mezulari/courier baten bidezko itzulketa izan ezik. Itzulketa mota hori jatorrizko Espainiako entrega-helbidean egin ahalko da soilik.

Era berean, jakinarazten dizugu ez dugula inondik inora (19.5 klausulan ezarritakoa izan ezik eta 19.6 klausula aplikagarria ez denean) bidalketa-gastuak itzultzeko betekizunik Espainiako jatorrizko entrega-helbidera egindakoak ez badira, ezta Espainiako lurraldetik kanpo egindako itzulketa-gastuak ere.

## 21. BERMEAK

Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa kontratatzen baduzu, neurri zuzentzaileak hartzeko eskubidea duzu, dohainik, ondasunei onespenerik ematen ez badiozu. Web-orri honen bidez merkaturatzen ditugun produktuei buruzko bermeak eskaintzen dizkizugu, produktu mota bakoitzerako lege ezarritako baldintzetan, eta beraz, produktu hori entregatu eta hiru urteko epean adierazten den adostasun ezagatik erantzungo dizugu.

Produktuek kontratuan zehazten denari jarraitzen diotela ulertuko da (i) guk egindako deskribapenari erantzuten badiote eta Plataformetan aurkeztu ditugun baldintzak betetzen badituzte, (ii) mota berdineko produktuek normalean duten erabilera berdinerako balio badute eta (iii) mota horretako produktu batengandik espero den kalitatea eta prestazioak baditu. Ildo horretatik, produktuetako batek kontratuan zehaztutakoa beteko ez balu, jakinaren gainean jarri beharko gaituzu, aurreko 19.5 atalean deskribatutako prozesuari jarraiki, helburu horretarako eskura jartzen dizkizugun komunikabideetako bat erabiliz.

Saltzen ditugun produktuek, eskuz landutakoek bereziki, fabrikazioan erabiltzen diren material naturalen ezaugarriak izan ditzakete askotan. Ezaugarri bereziak, hala nola zain, ehundura, korapilo eta kolore aldaketak, ez dira akats edo narrio gisa hartuko. Aitzitik, ezaugarri hori egon daitekeela kontuan hartu eta baloratu beharko litzateke. Kalitate goreneko produktuak soilik aukeratzen ditugu, baina ezaugarri naturalak ezin ditugu ekidin, eta produktuaren berezitasun gisa hartu behar dira.

Gure merkataritza-bermeak ez die eragingo indarreko legeriak aitortzen dizkizun eskubideei.

## 22. ERANTZUKIZUNA ETA ERANTZUKIZUN SALBUESPENA

Honako Baldintzetan berariaz aurkakoa adierazi ezean, gure Plataformetan erositako edozein produkturekiko dugun erantzukizuna produktu horren erosketa-preziora mugatuko da.

Hala ere, kontrako lege-xedapenik ez badago, ez dugu gure gain hartuko honako hauen gaineko erantzukizunik, jatorria edozein dela ere:

- \* diru-sarrerak edo salmentak gutxitzea;
- \* negozioaren galera;
- \* lortu gabeko irabaziak edo kontratuen galera;
- \* aurreikusitako aurrezkien galera;
- \* datuen galera;
- \* gestioan edo bulegoko ordutegian galdutako denbora.

Plataformen izaera irekia dela eta, eta informazio digitala biltegitratzean eta transmititzean akatsak egon daitezkeenez, ez ditugu bermatzen Plataformen bitartez helarazitako edo lortutako informazioaren zehaztasuna eta segurtasuna, kontrakoa adierazten ez bada behintzat.

### **23. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA**

Onartzen duzu Plataformetan dauden material edo edukien copyright-ak, marka erregistratuak eta jabetza intelektual zein industrialarekin lotutako gainerako eskubideak une oro gureak direla, edota horiek erabiltzeko lizentzia eman digutenenak. Material hori guk edo hura erabiltzeko lizentzia eman digutenek berariaz baimendutako moduan bakarrik erabili ahal izango duzu. Horrek ez dizu eragotziko Plataformak erabiltzea zure eskabideari buruzko informazioa edo Harremanetarako datuak kopiatzeko.

### **24. BIRUSAK, PIRATERIA ETA BESTELAKO ERASO INFORMATIKOAK**

Plataformak behar bezala erabili behar dituzu, horien bidegabeko erabilera egin gabe, bertan birusak, troiarrak, harrak, bomba logikoak edo teknologikoki kaltegarria izan daitekeen bestelako edozein programa edo material nahita sartu gabe. Ez zara Plataformetan baimenik gabe sartzen saiaturiko, ezta ostatu duen zerbitzarian edo gure Plataformei lotutako edozein zerbitzari, ordenagailu edo datu-basetan ere. Konpromisoa hartzen duzu zerbitzu-ukatzeko edo banatutako zerbitzu-ukatzeko baten bitartez Plataformak ez erasotzeko. Klausula hori ez betetzeak aplikatzeko den araudian tipifikatutako arau-hausteak ekar lezake. Aipatu araudi horren edonolako urratzeren berri emango diegu autoritate eskudunei, eta eurekin batera jardungo gara erasotzailearen nortasuna ezagutzeko.

Halaber, klausula hau betetzen ez baduzu, berehala Plataformak erabiltzeko baimena galduko duzu. Ez dugu erantzukizunik izango Plataformak erabiltzearen, bertako edukiek deskargatzearen edo webguneak eramandako edukien ondorioz zure ordenagailuak, ekipamendu informatikoak, datuek edo materialek kalteak edo galerak izaten badituzte, baldin eta horien jatorria zerbitzu-ukatzeko eraso bat, birus bat edo teknologikoki kaltegarria den bestelako programa edo material bat bada.

### **25. GURE PLATAFORMETAN AGERTZEN DIREN ESTEKAK**

Gure Plataformek beste webguneetara eta edukietara zuzentzen duten estekak badituzte, esteka horiek informatzeko helburuarekin bakarrik idazten dira; guk ez dugu inolako kontrolrik webgune edo material horietako edukien gainean. Beraz, ez dugu gure gain hartzen haiek erabiltzeak ekar dezakeen edozein kalte edo galeraren gaineko erantzukizunik.

## **26. IDATZIZKO JAKINARAZPENAK**

Aplikagarri den araudiaren arabera, idatziz bidali beharko dizugu informazioaren edo jakinarazpenen zati bat. Plataformak erabiltzean, jakinarazpen gehienak elektronikoki egingo direla onartzen duzu. Zurekin harremanetan jarriko gara posta elektronikoki bidez, edo informazioa helaraziko dizugu Plataformetan oharrak argitaratuz. Kontratuaren ondorioetarako, baimena ematen duzu komunikatzeko bitarteko elektronikoki hau erabiltzeko, eta aitortzen duzu elektronikoki igortzen dizkizugun kontratu, jakinarazpen, informazio eta gainerako komunikazioek idatzizkoak izateko legeko betebeharrak betetzen dituztela. Baldintza honek ez du inolako eraginik izango legeak ematen dizkizun eskubideetan.

## **27. JAKINARAZPENAK**

Bidaltzen dizkizugun jakinarazpenak, hobe harremanetarako dugun formularioaren bidez bidaltzen badizkizugu. Aurreko 25. klausulan zehazten denaren arabera eta kontrakoa erabakitzen ez den bitartean, zure eskaera egitean zehaztutako e-postara edo posta-helbidera bidali ahal izango dizkizugu jakinarazpenak. Jakinarazpenak behar bezala egin direla eta jaso dituzula ulertuko dugu gure Plataformetan argitaratzen dugun unean bertan, posta elektronikoki bidez bidali eta 24 ordu geroago, edo gutuna frankeatu eta hiru egun geroago. Jakinarazpena gauzatu dela frogatzeko, nahikoa izango da, gutunaren kasuan, helbidea zuzena dela, behar bezala zigilatuta zegoela eta Correos-en edo postontzian behar bezala entregatu dela ziurtatzea; eta, posta elektronikokiaren kasuan, hartzailleak zehaztutako helbidera bidali dela ziurtatzea.

## **28. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK LAGATZEA**

Kontratua loteslea da zuretzako zein guretzako, baita gure ondorengoentzako, lagapen-hartzailleentzako eta kausadunentzako ere. Ezingo dituzu kontratu bat edo kontratu horretatik ondorioztatutako eskubideak edo betebeharrak transmititu, laga, kargatu edo transferitu, aurretik gure idatzizko baimena jaso ez baduzu. Kontratu bat edo kontratu horretatik ondorioztatutako eskubide edo betebeharren bat transmititu, laga, kargatu edo transferitu ahal izango dugu edozein momentutan, kontratua indarrean dagoen bitartean. Edozein zalantza saihesteko, transmisio, lagapen, karga edo bestelako transferentziek ez dute kontsumitzaile gisa legeak ematen dizkizun eskubideetan eraginik izango, eta ez dituzte guk emandako bermeak, berariazkoak zein isilekoak, indargabetuko, murriztuko edo mugatuko.

## **29. GURE KONTROLPETIK KANPOKO GERTAERAK**

Ez gara erantzule izango kontratu baten babespean onartzen ditugun betebeharren bat betetzen ez badugu edo horretan atzerapenak gertatzen badira, hori gertatzearen kausa gure arrazoizko kontrolpean ez badago ("Ezinbesteko Kausa"). Ezinbesteko Kausen artean, gure arrazoizko kontrolpean ez dagoen edozein ekintza, gertaera, jardute-eza, ez-egite edo istripu egongo da, besteak beste jarraian zehazten direnak:

1. Grebak, ugazaben itxiera edo bestelako erreibindikazio-neurriak.

2. Gizarte astindua, iraultza, inbasioak, eraso edo mehatxu terrorista, gerra (aitortua zein ez) edo gerra-mehatxua edo gerrarako prestaketak.
3. Sutea, eztanda, ekaitza, uholdea, lurrikara, hondoratzea, izurria edo bestelako hondamendi naturalak.
4. Trenak, itsasontziak, hegazkinak, motordun garraiobideak eta bestelako garraioak, publikoak nahiz pribatuak, ezin erabili izatea.
5. Telekomunikazioetarako sistema publiko zein pribatuak erabiltzeko ezintasuna.
6. Edozein gobernu edo agintaritza publikoren egintzak, dekretuak, legeria, araudia edo murrizketak.

Kontratuetatik eratorritako betebeharrak bertan behera geratuko dira Ezinbesteko Kausak dirauen bitartean, eta betebeharrak horiek betetzeko epea luzatuko da, Ezinbesteko Kausak irauten duen denbora berdinean. Gure esku dagoen guztia egingo dugu Ezinbesteko Kausa lehenbailehen amaiarazteko edo Ezinbesteko Kausa hori egonda ere gure betebeharrak betetzen lagunduko diguten soluzioak bilatzeko.

### **30. UKO EGITEA**

Kontratu bati edo Baldintza hauei lotuta zeuk onetsitako betebeharren bat betetzea ez eskatu arren, edo guri kontratu baten edo Baldintzen arabera dagozkigun eskubide edo ekintzaren bat ez gauzatu arren, ez du esan nahi eskubide edo ekintza horiekin loturiko eskubideak edo ekintzak ezeztatzen edo mugatzen direnik, eta zu ere ez zaitu betebeharrak horiek betetzetik salbuetsiko. Guk eskubide edo ekintza zehatzen bati uko egiteak ez du berarekin ekarriko kontratutik edo Baldintzetatik erator daitezkeen beste eskubide edo ekintzei uko egitea. Guk Baldintza hauetakoren bati edo kontratutik eratorritako eskubide edo ekintzaren bati uko egiteak ez du efekturik izango baldin eta uko egitea berariaz adierazten ez bada, eta idatziz gauzatu eta horren berri ematen ez bazaizu, Jakinarazpenei buruzko aurreko atalean ezarri bezala.

### **31. DEUSEZTASUN PARTZIALA**

Erakunde eskumendun batek emandako ebazpen irmo bidez Baldintza hauetakoren bat edo kontraturen bateko xedapenen bat deuseztatu eta efekturik gabe geratzen bada, gainerako baldintzek indarrean jarraituko dute, deuseztapen horrek ez baitu eraginik izango azken horiengan.

### **32. HITZARMEN OSOA**

Baldintza hauek eta bertan aipatzen diren dokumentu guztiek osatzen dute zure eta gure arteko hitzarmen osoa Baldintzetan adierazitako helburuei dagokienez, eta aurretik zure eta gure artean hitzez edo idatziz egindako beste edozein hitzarmen, akordio edo hitzarmate ordezkatzeko dute. Zuk eta guri kontratu hau gauzatzeko baimena eman dugu, eta aitortzen dugu kontratua sinatu aurretik beste alderdiak ez duela inolako aitortpen edo zirik egin, edo egindako edozein aitortpen edo idatzietatik ondoriozta litekeen aitortpen edo zirik, Baldintza hauetan berariaz adierazten direnak izan ezik. Ez zuk eta ez guri ez dugu ekintzarik gauzatzeko izango beste alderdiak kontratua sinatu aurretik egindako hitzezko edo idatzizko gezurrezko

adierazpenen aurrean (aipatutako adierazpen hori iruzurrez egin bada izan ezik), eta beste alderdiak gauzatu ahal izango duen ekintza bakarra kontratua ez betetzeagatik izango da, Baldintza hauetan zehazten denari jarraiki.

### **33. BALDINTZA HAUEK ALDATZEKO ESKUBIDEA**

Baldintzak aldatzeko eskubidea izango dugu. Egindako aldaketak ez dira atzeraeraginezkoak izango. Aldaketekin ados ez bazaude, gure Plataformak ez erabiltzea gomendatzen dizugu.

### **34. LEGEDI APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA**

Espainiako legediak arautuko ditu gure Plataformen erabilera eta haien bitartez egindako produktuen erosketa-kontratuak. Plataformen erabilerari edo aipatutako kontratuei lotuta sor litekeen edozein gatazka konpontzeko jurisdikzio ez-esklusiboa Espainiako epaitegi eta auzitegiarena izango da. Kontsumitzaile gisa egin baduzu kontratua, klausula honetako ezerk ez du eraginik izango indarreko araudiak aitortzen dizkizun eskubideetan.

### **35. IRUZKINAK, IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK**

Zure iruzkin eta iradokizunak atsegin handiz jasoko ditugu. Iruzkinak, iradokizunak, kontsultak, kexak edo erreklamazioak bidaltzeko, erabili gure harremanetarako inprimakia. Edo, nahiago baduzu, Baldintza hauetako 2. klausulan adierazitako telefono, posta-helbide edo helbide elektronikoen bitartez bidal ditzakezu. Horrez gain, erreklamazio-orri ofizialak ditugu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura. 900 456 000 telefono-zenbakira deituta edo gure harremanetarako formularioaren bidez eska ditzakezu agiriok.

Gure bezeroarentzako arreta-zerbitzuan jartzen dituzun kexa eta erreklamazioei ahalik eta lasterren erantzun diegu, hilabete batean gehienez ere. Era berean, jakinaraziko dizugun identifikazio-gako batekin gordeko dira, aldi oro horien egoeraren berri izan dezazun.

Kontsumitzailea bazara eta zure eskubideak urratu direla uste baduzu, kexa bidal diezagukezu [contact@massimodutti.com](mailto:contact@massimodutti.com) helbide elektronikora, epaiketaz kanpo konpon dadila eskatzeko.

Zentzu horretan, zure eta gure arteko erosketa kontratua on line burutu bada, gure Plataformen bitartez, EBko 524/2013 Araudian ezarritakoari jarraiki, jakinarazten dizugu epaiketaz kanpo konpon dadila eskatzeko eskubidea duzula, <http://ec.europa.eu/consumers/odr/> helbidearen bitartez.

Azken aldaketa: 2024/05/13

## Uko egiteko formularioaren eredia

**(Kontratuan atzera egin nahi baduzu soilik bete eta bidali behar duzu formulario hau)**

Grupo Massimo Dutti, S.A.-rentzat, Massimo Dutti izen komertzialpean jarduten duena,  
Tordera-Palafolls errepidea, z.g., 08490 Tordera, Bartzelona [contact@massimodutti.com](mailto:contact@massimodutti.com)

Honen bitartez jakinarazten dut salgai honen salmenta kontratuan atzera egin nahi dudala:

Noiz eskatua/jasoa (\*):

Konsumitzailearen izena:

Konsumitzailearen helbidea:

Konsumitzailearen sinadura (formulario hau paperean aurkezten bada soilik) Data:

(\* ) Ezabatu egokia ez dena



## **MASSIMO DUTTI APLIKAZIOAREN ETA BERE FUNTZIONALITATEEN ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK**

Zehaztapen eta baldintza hauek (aurrerantzean, “Baldintzak”) berariaz eta modu osagarrian arautzen dituzte [www.massimodutti.com](http://www.massimodutti.com) webguneko Erabilera eta Erosketa Baldintzak, MASSIMO DUTTI (“aplikazioa”) markaren aplikazioan eskuragarri dauden zerbitzuen sarbidea eta erabilera, bai eta funtzionalitate desberdinak ere, guztiak aplikazioaren bidez eskura daitezkeenak, eta horietako batzuk, modu independentean, beste plataforma batzuen bidez (“Funtzionalitateak”).

Funtzionalitateen barruan sartzen dira: (i) aplikazioaren bidez produktuak erosteko aukera; erosketa horiek Online Dendan egindako erosketatzat joko dira, eta, beraz, [www.massimodutti.com](http://www.massimodutti.com) webguneko Erabilera eta Erosketa Baldintzen mende egongo dira; (ii) MASSIMO DUTTI denda fisikoetan (aurrerantzean, eta dagokion erreferentziaren arabera, “Denda Fisikoa” edo “Denda Fisikoak”) ordainketak kudeatzeko aukera (aurrerantzean, “Wallet”); (iii) MASSIMO DUTTI enpresaren online dendetan (aurrerantzean, “Online Denda”) egindako erosketen tiketak kudeatzea, eta hala eskatzen denean, baita Denda Fisikoetan egindako erosketen tiketak ere; biak Espainian GRUPO MASSIMO DUTTI SA sozietateak kudeatzen ditu, helbidea Avenida de la Diputación, Edificio Inditex duenak, eta IFZ A-78115201 daukanak; (iv) tiket elektronikoa edo erosketa-egiaztagiri elektronikoa eskuratzeko aukera (aurrerantzean, “Tiket elektronikoa”), aurrez “Tiket elektronikoa” aukera hautatuz aplikazioan eta QR kode identifikagarria (“QR ID”) MASSIMO DUTTI Denda Fisikoetan erakutsiz. Transakzio bakoitzean, tiketa paperean jaso ordez, Tiket Elektronikoa jaso ahal izango da.

### **1. FUNTZIONALITATEEN DESKRIBAPEN OROKORRA**

#### **1.1. Produktuak aplikazioaren bidez [www.massimodutti.com](http://www.massimodutti.com) webgunean erostea**

Aplikazioak aukera ematen die bezeroei produktuak [www.massimodutti.com](http://www.massimodutti.com) webgunearen bidez erosteko. Beraz, Online Dendan egindako erosketatzat joko da, eta [www.massimodutti.com](http://www.massimodutti.com) webgunearen Erabilera eta Erosketa Baldintzen mende egongo da. Baldintza horiek onartu egin behar dira erosketa egiten denean.

#### **1.2. Wallet funtzionaltasuna**

Wallet funtzionalitatea erabiliz, aukera hauek dituzu:

i. Denda Fisikoetan egindako erosketei dagozkien **tiket elektronikoak eskuratzea**, Wallet-en bidez ordainketa abiarazi duenean edo 1.4 eta 1.5 ataletan adierazitakoaren arabera eskatu edo sortu dituenen. Halaber, eskura izango dituzu online dendako tiket elektronikoak;

ii. **Ordainketa- eta opari-txartelak kudeatzea**: aukera ematen du denda fisikoetan Wallet erabiliz hasten diren ordainketak egiteko erabiliko diren txartelak gehitzeko. Online salmentako erosketak azkarra aukeraren bidez gordetako txartelak lehendik ere baldin badaude, horiek automatikoki egongo dira erabilgarri Wallet bidezko ordainketarako txartel modura aktibatu ahal izateko.

Beste txartel baten datuak sartzean, baimena ematen diguzu gorde nahi dituzun txartelen zein opari-txartelen baliotasuna egiaztatzeko. Horretarako, baliteke zure txartelean zordunketaren bat egin behar izatea, mikroordainketaren segurtasun-sistemaren bitartez.

Mikroordainketa horren zenbatekoa itzuli egingo zaizu eragiketa burutzen denetik hasi eta hilabete bateko epean beranduenez jota. Txartelak kudeatzeaz gain, Wallet zerbitzuak horiei lotutako pasahitzak sortzea eskatu ahalko dizu, aplikazioa abiarazten den gailuan gaituta diren segurtasun-mekanismoen arabera.

iii. **Wallet bidez ordaintzen hastea**: Wallet bidezko ordainketak horretarako prestatutako Denda Fisikoetan kudeatzeko, dagokion dendako langileek emango dizkizuten jarraibideei egin beharko diezu kasu.

Dena dela, Wallet bidez ordainketak egiten hasteko, kontuan izan behar duzu aplikazioak sortutako QR kodea aurkeztu beharko diezula dendakoei, Denda Fisikoaren kutxa-eremuan gaitutako bitarteko teknikoek haiek egiazta eta irakur dezaten.

Aplikazioa exekutatzen den gailuko segurtasun-mekanismoek hala behartzen badute, Wallet-ek pasahitza sartzea eska dezake ordainketaren kudeaketa ahalbidetzen duen QR kodea sortu ahal izateko.

Salgaiak entregatuko zaizkizu horiek erosi ondorengo ordainketari ekitea baimentzen duzun unean. Horretarako, dendako langileei QR IDa aurkeztu behar zaie, eta kode hori irakurriko da denda fisikoko kutxa-eremuan gaitutako bitarteko teknikoek bidez.

Ordainketa Wallet bidez hasitako erosketek dagokion Denda Fisikoak ezarrita dituen erosteko baldintzak bete beharko dituzte beti. Horretarako, zure eta dagokion Denda Fisikoaren arteko kontratuarekin lotutako edozein erreklamazio GRUPO MASSIMO DUTTI SArI zuzendu beharko diozu 900 456 000 telefonoaren bidez, edo kasuaren arabera aplikagarri zaion sozietateari, adibidez, Espainiatik kanpo diren denda fisikoetan jazo badira. Wallet doako zerbitzua da.

Hala ere, txartel jaulkitzaileak komisioak kobra ditzake horrekin egindako ordainketengatik. Informazio gehiagorako, kontsulta itzazu zure txartelaren

jaulkitzailearekin duzun kontratuko zehaztapenak. Era berean, zure telekomunikazio zerbitzuetako operadoreak kobratu ahal dizu Walletera sartzeko erabiltzen duzun telekomunikazio sarearengatik.

Informazio gehiagorako, kontsulta itzazu zure sarearen hornitzailearekin duzun kontratuko baldintzak.

Wallet soilik adierazitako establezimenduetan ordainketak hasteko erabiliko da. Erabat debekaturik dago Wallet bestelako xedeetarako erabiltzea.

Beraz, erabiltzaile izatetik kentzeko eta, ondorioz, zure kontua ezerezteko eskubidea izango dugu; eta baita behar ez bezalako edo iruzurrezko erabilera egiten duen edota Wallet Baldintza hauetan nahiz Walleti, aplikazioari edo Zerbitzuari aplikatu dakiekeen legezko beste testuetan jasotzen diren arau eta prozedurak betetzen ez dituen erabiltzaileari dagozkion erantzukizunak eskatzeko eskubidea ere.

### **1.3. MASSIMO DUTTI zerbitzuaren erabiltzaile gisa identifikatzea, QR ID erakutsiz.**

QR ID baliagarria izango da bezeroa Denda Fisikoaren barruan identifikatzeko, prozedura sinplifikatuz eta erosketa-esperientzia hobea ahalbidetuz. QR IDak aukera emango dio erabiltzaileari sustapen-ekintzetan parte hartzeko eta beste abantaila batzuk lortzeko, betiere kasu bakoitzean aplikatu beharreko baldintzen arabera.

### **1.4. Tiket Elektronikoa lortzea Denda Fisikoetako erosketetan**

Erabiltzaile erregistratua bazara, baina ez baduzu ordainketa-txartelik erregistratu nahi (Wallet funtzionalitateari dagokiona), automatikoki agertuko zaizu App-ean, QR kode eskusibo eta identifikatzaile bat, testu honetan QR ID gisa aipatua. QR ID hori beste plataforman batzuen bidez ere eskuratu ahal izango da, eta ez App-aren bidez bakarrik, eta, besteak beste, Tiket Elektronikoa eta App-ean ordainketa-frogagiri elektronikoak eskatzeko eta jasotzeko erabili ahal izango da. Funtzionalitate hau erabiltzeko, App-ean "Ticket Elektronikoa" Aktibatu beharko duzu, eta QR ID erakutsi, eta Tiketa automatikoki bidaliko zaizu App-era.

Une horretatik aurrera, Tiket hori erabili ahal izango duzu Denda Fisikoetan aldaketak zein itzulketak egiteko, une bakoitzean MASSIMO DUTTIren merkataritza-politikaren arabera aplikatzekoak diren baldintza eta zehaztapenen baitan, eta betiere indarrean den legeriari jarraituz.

Horrelakoetan ez da paperezko euskarrian tiketik emango. **Beraz, funtsezkoa da ulertzea QR ID hau erabiliz, dagokion aukera aktibatuta, berariaz eskatzen ari zarela tiket elektronikoa edo erosketaren frogagiria formatu digitalean igortzea. Horrenbestez, uko egiten diozu hura paperean jasotzeari. Nolanahi ere, nahi izanez gero, paperean eskatu ahal izango duzu tiketa.**

Nolanahi ere, tiket elektronikoei buruzko araudia edo aplikatu beharreko beste edozein araudi aplikatuko da beti, eta Baldintza hauek araudi horren mende egongo dira.

Erabiltzaile izateari uztea erabakiko bazenu, baja izapidetu bitartean aplikazioan bilduta diren tiket guztiak adierazten duzun posta elektronikora bidaltzea eska dezakezu.

### **1,5. Tiketak “eskaneatzea”:**

Paperezko formatuan den tiket batetik tiketaren kopia digital bat sor daiteke, tiketan inprimatuta dagoen QR kode bat eskaneatuta. Une horretatik aurrera, tiket hori erabili ahal izango duzu Denda Fisikoetan itzulketak egiteko, une bakoitzean MASSIMO DUTTI merkataritza-politikaren arabera aplikatzekoak diren baldintza eta zehaztapenen baitan, eta betiere indarrean den legeriari jarraituz.

## **2. APLIKAZIOAREN ZERBITZUEN ETA FUNTZIONALITATEEN ERABILGARRITASUNA**

Betiere aplikatu beharreko legeria errespetatuz, eskubidea izango dugu edozein unetan aldatzeko, eteteko edo ezabatzeko, bere nahierara eta alde zuzenetik abisatu gabe, oro har edo erabiltzaile batentzat edo gehiagorentzat, App-aren edo Funtzionalitateetako edozeinen edo guztien erabilgarritasuna/irisgarritasuna, bai eta App-en erabilgarritasuna eta/edo Funtzionalitate guztiak edo batzuk aldatzeko, eteteko edo ezabatzeko ere, baldintza berberetan.

## **3. ERANTZUKIZUNA**

Legeak erantzukizunetik salbuestea mugatzen duen kasuetan izan ezik, ez gara App-a/Funtzionalitate desberdinak erabiltzeak sor diezazkizukeen kalteen erantzule.

Erabiltzaile zarela konpromisoa hartzen duzu App-a/Funtzionalitatea soilik jatorrizko xederako erabiliko duzula eta ez duzula behar ez bezalako edo iruzurrezko erabilerarik egingo. Aplikazioa/funtzionalitateak behar ez bezala erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzulea izango zara Sozietatearen edo beste edozein hirugarrenen aurrean.

Kasu hauetan zure ardura izango da:

- hala dagokionean, aplikazioari, SIM txartelei, posta elektronikoko helbideei edota edozein pasahitzi lotutako zure ekipoa edo terminalak guri jakinarazi gabe baimena eman diozun hirugarren batek erabiltzen dituenean.
- zure hardwarearen, softwarearen, gailuen edo terminalen funtzionamendu akastunaren ondorioz edo App-a/Funtzionalitateak exekutatzen diren gailuan beharrezko segurtasun-

mekanismoak ez izanaren ondorioz, App-a / Funtzionalitateak erabiltzean erroreak edo akatsak gertatzen direnean.

#### **4. JABETZA INTELEKTUALAREN ETA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK ETA APLIKAZIOAREN ETA FUNTZIONALITATEEN BESTE ESKUBIDE BATZUK.**

App/Wallet/beste Funtzionalitate batzuen parte diren edo barne diren edozein elementu Sozietatearen edo hori erabiltzeko baimena eman duten hirugarrenen jabetzekoak dira edo horien kontrolpean daude. Horri guztiari "Jabetza" esango zaio aurrerantzean.

Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du honakoak ez baztertzeko, ez kentzeko, ez aldatzeko, ez manipulatzeko eta inola ere ez aldatzeko:

- Sozietateak edo eskubideen legezko titularrek jabetza intelektual edo industrial kontuan euren jabetzari gehitzen dizkieten ohar, legenda, seinale edo ikur guztiak (esate baterako, copyright, ©, ® eta ™, etab.).
- Jabetzak eduki ditzakeen babesteko edo identifikatzeko gailu teknikoak (esaterako, ur markak, hatz markak, etab.). Erabiltzaileak aitortzen du Sozietateak ez diola Baldintza hauen bitartez haren Jabetzari edo hirugarren batzuen jabetzakoak direnei buruzko inolako eskubiderik uzten edo eskualdatzen.

Sozietateak horiek eskuratu eta erabiltzeko baino ez du baimentzen erabiltzailea, eta Baldintza hauetan azaltzen diren baldintzei jarraiki gainera.

Erabiltzaileek ez dute baimenik Jabetza era komertzialean ustiatzea dakarten jarduerak kopiaatzeko, banatzeko (posta elektronikoak eta Internet barne), igortzeko, komunikatzeko, aldatzeko, nahasteko, eraldatzeko, uzteko edo beste edozein modutara zabaltzeko, partez edo osorik, ez bada ustiapen eskubideen legezko titularrak idatziz emandako berariazko baimenarekin.

Jabetzaren eskuratzea eta erabilera norberaren xederako izango da beti eta edonon, ez da merkataritza xedeetarako izango.

Sozietateak beretzat gordetzen ditu Jabetzari buruz dagozkion eskubide guztiak, eskubide horien gainean, azalpen gisa eta izaera murriztailerik gabe, dituzten jabetza intelektual eta industrialeko eskubide guztiak barne.

Sozietateak ez dio erabiltzaileari klausula honetan berariaz jasotzen den Jabetzari buruzko bestelako lizentzia edo baimenik ematen. Sozietateak, halaber, beretzat gordetzen du Baldintza hauen arabera emandako lizentziak edozein unetan eta edozer arrazoirengatik azkentzeko edo aldatzeko eskubidea.

Dena dela, Sozietateak legezko ekintzak abiarazi ditzake erabiltzaileak egiten duen edozein erabilpenen aurka, baldin eta erabilera:

- ez bada egiten hemen azaldutako zehaztapen eta baldintzak jarraituz;
- Sozietatearen edo hirugarrenengo legezko titular baten jabetza intelektualen, industrialen edo antzekoen eskubideak hausten edo urratzen baditu; edo aplikagarri den edozein araudi hausten badu.